

Rosana Fernandes

“Gizateriaren etorkizuna agrotoxikorik gabeko elikagaiak sortzean datza”



Brasilgo Mato Grosso estatuko nekazari familia txirotu baten zortzi umetarik hirugarrena da Rosana Fernandes. MSTko (Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra) kidea eta Florestan Fernandes Eskolako koordinatzaile politiko pedagogikoa da. Egunotan Euskal Herrian zehar ibili da hitzaldiak ematen Oinharri eskolak gonbidaturik.

 RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA  DOSPORDOS

Nola sortu zen Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimendua?

Brasilgo lurraren aldeko borrokaren jarraipena da MST. 521 urtez, jatorrizko herrien erresistentziatik, lurraren defentsan borroka asko izan da. Historia ofizialean portugaldarrek aurkitu zuten Brasil, lurralde hutsa bailitzan, desokupatua. Ondoren, lurrarekin loturik, esklaboen borroka agertu zen, oso bortitza, martiri ugarirekin... Segida horretan, diktadura militar betean sortu zen MST, Brasilgo herri mugimenduen berrantolatze batean: batetik, eliza katolikoaren Lurraren Pastoral Batzordean ari ziren batzuek nahi zuten areago eta zabalago antolatu, elizaren barruan ezin zutelako egin; eta, bestetik, Central Única dos Trabalhadores eta Partido dos Trabalhadores-en sorrera izan zen. MSTa 1984an jaio zen, Paraná estatuan egin zen topaketa batean.

Eta zu nola sartu zinen?

Aita eskualdeko etxaldeetan lanean aritu izan zen beti, hori erne zitzaidan MSTn sartzeko hazia, gure eskualdea izan zen Mato Grossoko bigarrena MST lanean hasi zena. Hamasei urte nituen eta eliza katolikoaren Gazteri Pastorealean esku hartzen nuen, oinarri komunitateetan.

MSTk halako espazioetan bilatu zuen babilak, eta nik lagundu nuen aliantza horiek gerta zitezen, familiak antolatu eta lurra okupatzeko. Artean, ikaslea ere banintzen eta giza eskubideen aldeko zentro batean lan egiten nuen idazkari gisa. Gurasoek mesfidantzaz hartu zuten hori dena hasieran, baina denborarekin ulertu nuen zein zen MSTren helburua, eta hori zegoela nire lekua.

Gurasoak kontra zenituen?

Bai, MSTk familiarekin hitz egin bazuen ere, nire gurasoek ez zekiten zer zen. Ikusi zutenean lurra okupatu zituela eta neu tartean nengoela ez zitzaizkion gustatu. Gerora ulertu zuten, neba-ahizpa batzuk eta ama bertan bizi dira geroztik, aita ere bai duela hiru urte hil zen arte. Bertan ditut 15 eta 10 urteko bi alabak eta 23 urteko semea ere MSTrekin ari da.

Zer moduz joan zen lehen okupazio hura?

Tentsio handikoa izan zen. Oso latifundio handia zen, eta gu 1.503 familia okupatzen. Gurasoek debekatu zituzten kanpamentuan familiarekin egotea, baina nik ez nuen men egiten. Katastro bat egin nuen, garrantzitsua da Nekazaritza Erreforma-

rako, familiak bertan bizi eta lurra landu ahal izateko. Okupazio hartan egin nuen bat mugimenduekin. Gure okupazioa 1996ko apirilaren 9an izan zen eta handik oso gutxira, hilaren 17an Eldorado-ko sarraskia izan zen, Carajás-en, Pará estatuan. Hemeretzi langile hil zituzten. 2007az gero egun hori da Nekazarien Borrokaren Nazioarteko Eguna. MSTren borroka agerian geratu zen eta gure okupazioan parte hartzen ari ziren familiak asko beldurtu ziren. Azkenean, ordea, sarraski haren ondorioz, nekazaritza ministroak dimisioa eman zuen eta gobernuak negoziazio prozesua azkartu zuen. Sei hilabeteren buruan 1.503 familiek eskuratu zituzten lur haiek.

Zertan ibili zara MSTn geroztik?

Negoizazioak izan ziren sei hilabete haietan, Mato Grossoko idazkaritzan esku hartzeraz gonbidatu ninduen MSTk. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Moja izateko prestatzen ari nintzen, gaztea nintzen eta aukera bat zen kanpora ikastera ateratzeko. Asmo hori aldatu eta 17-18 urterekin familia utzi nuen MSTrekin bat egiteko. 25 urte joan dira geroztik eta fase asko bizi izan ditut: oinarriko militantea lurra okupatzen, estatu mailako idazkari,



hezkuntza sektorean he-
zitzaileen formakuntzan,
gazte eta helduen alfabetatzean, gero Goiás estatura joan nintzen han mugimendua antolatzeko batez ere hezkuntza arloan, Goiaseko ordezkaria izan nintzen Zuzendaritza Nazionalen sei urtez, eta 2014an Florestan Fernandes eskolako koordinatzaile politikoa izatea egokitu zitzaidan, hasiera batean hiru urterako zen, baina momentuz zazpi urtez luzatu da (irribarrez). Ikasten ere ari naiz, doktoretza egiten Florestan Fernandes bertan, Sao Paulo-ko unibertsitatearekin loturik.

Zertan datza MSTren iraupenaren eta zabalpenaren gakoa?

Brasil oso handia da, 850.000 kilometro koadro 27 estatutan banatuta. MST 24tan presente dago, estatu bakoitzak ezaugarri bereziak dauzka, baina MSTren sinbologia eta hiru printzipioak berak dira denentzat: lurra deszentralizatzearen eta demokratizatzearen aldeko borroka; Nekazaritza Erreformaren aldeko borroka duintasunez lan egin eta bizitzeko baldintzak lortzeko -ume eta helduentzako



hezkuntza, azpiegiturak (ura, saneamen-
dua, errepidea, ekoizpena garatzeko in-
bertsioa), osasungintza...; eta gizartea
eraldatzeko proiektua, ekoizpen eredu
kapitalistaren aurrean herri-iraultza so-
zialista bat antolatzea.

Hiru helburuok batera jorratzen ditu-
gu, ez doaz bata bestea baino lehen, eta
horrela gure identitatea eraikitzen joan
gara Brasilen eta nazioartean.

Eta barnean nola garatzen dituzue harremanak?

Zuzendaritza eta koordinazio guneak
kolektiboak eta behetik gorakoak dira.
Komunitateek erabakitzen dute euren
ordezkaria, eta horrela goraka segi; ez
dute buruzagiek erabakitzen. Gure bo-
tere gune nagusia Nazio Biltzarra da eta
komunitate-ordezkarien ardura da ha-
ren ildoet lotzea. 400.000 familia gara,
2014ko Biltzarrean, esaterako, 17.000
langilek parte hartu genuen. Alabaina,
debate eta erabaki politikoak lehenago
hartuak dira, komunitateetan.

Identitate kolektiboak garrantzi handia du zuentzat, ezta?

Bai, zeregin guztietan dago kolektibo bat
ardura hartzen duena. Neuk Florestan
Fernandes eskolako koordinazioaren ar-
dura dut, adibidez, baina ez dut neuk ba-
karrik hartzen, nirekin batera kolektiboa
dago. Hori da zuzendaritza kolektibora-
ko bermea. Mundu guztiarentzat dago
lana eta mundu guztiak hartzen du parte
erabakietan. Planifikazioa ere orokorra

da. Izan bilerak edo izan okupazio bat,
aurrez planifikatu behar da: elikadura,
garraioa, idazkaritza, familiak eta kan-
pamentua antolatu, ume-zaintza, nola-
ko gatazkak gerta litezkeen aurreikusi,
erresistentzia taktikak...

Militantzia bera profesioa da. Eska-
tzen du denbora, proiektua antolatzea,
energia, ardurak hartzeko gaitasuna: ez
da denbora pasa huts bat, zure onena
eman behar duzu. Formazioari garran-
tzi handia ematen diogu. Etengabe ikasi
behar dugu. "Ez dut gehiago ikasi beha-
rrik" esatea ez da gure buruan sartzen.
Materialismo historikoari atxikitzen
gatzaizkio, baina Marx, Lenin, Gramsci,
Freire, Florestan Fernandes... ezin ditugu
azalean ulertu, laguntzen digute gaurko
errealitatea ulertzen, teoriak jabetzen,
baina beren sasoian kokaturik idatzi zu-
ten, eta sakondu beharra dago.

Nolako harremanak dituzue gainontzeko antolakundeekin?

Aliantzak eraikitzen ditugu gizarte mu-
gimenduekin, alderdi politikoekin, insti-
tuzioekin, ahots propioz. Badugu babes
eta elkartasun sare trinkoa. Pandemia
izan den bitartean, esaterako, MSTk lau
milioi tona janari agroekologiko banatu
zuen hirietako periferia txirotuetan, jaso
ohi dugun elkartasunaren ordean. Eta
jarraitzen dugu herritarrek alfabetatzen,
Brasilan oraindik 14 milioi analfabeto
daude, hirietara ere jo izan dugu alfabe-
tatze kanpainak egitera Kubarengandik
ikasitako *Yo sí puedo* metodoarekin.

Eta nazioartean?

MST da Via Campesina-ren sortzaile eta
bultzatzaile nagusietako bat, eta hor ez
dauden erakunde gehiagorekin ere ari
gara lanean. Berriki sortu den Herrien Na-
zioarteko Asanbladan munduko langile
klaserako proiektuak pentsatzen ari gara,
ez zentzu kapitalistan, baizik eta denon
ondasuna den biodibertsitatearen –ura,
lurra, mineralak...– zaintzaile bezala.

Eskolaren bidez ere bai, ezta?

Bai, MSTk 1996an erabaki zuen Brasil, La-
tinoamerika eta beste kontinenteentzako
erreferentzia izan zitekeen formazio-es-
pazioa eraikitzea. Florestan Fernandes es-
kolan gaur egun 30 ikastaro, mintegi eta
lantegi ditugu, 2005etik 2019ra 40.000 la-
gun eta 500 irakasle boluntario etorri dira.
Jardun akademiko hutsaz gain, historia,
ekonomia, edo nekazaritza kasu, zeharka-
ko gaiak jorratzen ditugu. Formazioa ez da
liburu asko irakurtzea bakarrik; azkenean
gizakiak gara, elkarrekin bizi behar dugu,
oso errealitate eta sistema ezberdinetatik
gatoz, beraz, artea, kultura edota musi-
karen bitartez balore txarren aurka (ma-
txismoa, homofobia, harrokeria, pertso-
nalismoak) borrokatzen gara. Autokritika
behar dugu, gizarte berri baterako emaku-
me eta gizon berriak bilakatu aldera.

Nolako pertsonak hurbiltzen dira eskolara?

Baditugu ikastaro bereziak MSTko mili-
tanteentzat, beste batzuk hirietako mili-
tanteekin batera, beste batzuk nazioarte-



koak, Latinoamerikarako gehien bat, eta ingelesez ere zenbaitetan. Pertsonak ezin dira indibidualki etorri, talderen batetik baizik, haien herrira itzultzean ikasitakoa kolektibizatzea bilatzen dugulako. Taldearen erdiak, gutxienez, emakumeek osatutakoa izan behar du. Umeentzako espazioak ditugu, eta amak formatzen diren bitartean umeekin lanketak egiten ditugu.

MSTra itzuliz, zenbat lur konkistatu duzue?

Ez dakit zenbat diren zehatz-mehatz, baina 400.000 familia gara, milioika hektareatan banatuta. Horrez gain, horretan ez da bakarrik MST ari, badira 90 bat herri mugimendu lurra konkistatzen.

Zer harreman duzue jatorrizko herriekin?

Estatuen arabera, maiz jatorrizko he-

rrietatik oso hurbil gaude eta batera borrokatzen dugu. Orain gobernuak lege bat onartu nahi du, historikoki jatorrizko herrienak izan diren lurraldeetatik haiek kanporatzeko. Gainera, pandemiaren ondorioak asko pairatu dituzte, eta haietako batzuek elikadura arazoak ere badituzte.

Jair Bolsonaroaren eragina handia izan al da?

Ofentsiba handia hasi du asentamenduak pribatizatzeko, jabetza komunala izatetik pribatura pasaz, bakoitzak bere lursailarekin nahi duena egin dezan. Guk lurra konkistatzen dugunean hura lantzeko da, ez saltzeko. Mugimenduaren barruan zalantzak eta gatazkak agertu dira; gobernuak zatiketa eragin nahi du.

Nola dakusazu Brasilgo egoera oro har?

Ofentsiba berriaren hasiera kokatzen dugu 2016an, Dilma Roussefeen aurkako estatu kolpearekin. Langile klasearen eta PT alderdiaren aurka ari dira. 2018ko hauteskundeetan Bolsonaro garaipena diskurtso moralista eta faxisten bitartez lortu zuen, *fake news* askorekin, baita familia eta Jainkoaren izenean hitz eginez ere, eliza ebangeliko eta Mentekostekoekin batera.

Zer etorkizun du nekazarien borroka?

Beharrezkoa da nekazal ekoizpena egiteko beste eredu bat ezartzea, MSTren kasuan Nekazaritza Erreforma Herrikoia deritzoguna: elikagai osasungarriak ekoiztea ardatz. Gizateriaren etorkizuna gizarte osoarentzat agrotoxikorik gabeko elikagaiak sortzeko gaitasunean datza, natura zainduz: lurrak eta urak ezin dute hainbeste agrotoxiko jasan. ●



HEMEN DAGO NAFARROA

